



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturen adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

Lege gordailua: BI-85-98

bertin

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

2000ko apirilak 21. zkia.
125 pzta.

MARÍA JAUREGI,
UGAOKO
MAHATSORRIA



GAZTEDI ETA EUSKERIA,
EUSKAL ALTXORRA
ESZENATOKIAN ZABALTZEKO
BAT EGINIK



BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETA MARTXAN



AMAIA PIEDRA

**"BILBON, KORRIKALARIONTZAKO
BIDEGORRIAK EGIN BEHARKO LIRATEKE"**

Santutxuko Txirrindularia Elkarte / Elektrotuna / Gizarte Bazterketa

betikoak



XIX. mendeko mahatszeria

Mendebete baino gehiago dala atara eban oraingo erretratu hau Eulalia Abaitua zanak. "Gure aurreko andrak" liburutik hartua dogu guk. Mahatszerri oraindikoko ez zan baserriz, ortuz, soloz eta txakolindegiz betetako herri txiki bat baino. Andra baserritar biok, astotxoaren laguntzaz, aldatzean gora doaz, Egirletatik -Santo Domingotik- Txoriherrira jaisteko seguru asko. Andra bion jazkera eta ule luzeari erreparatzeaz gain, atzean dagoan Begoñako eleizari be begiratu behar jako. Hala egin ezkerro torrea gaurko lakoa ez dala konturatuko gara. Oraingoa 1900. urtean jarri eben. Antziñe galdutako paraje eta bizimoduak dira hauek!

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@mail.com

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Martínez,
Joana Etxebarria,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez,
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKE-
TAZIOA:**
Iñaki Berastegi,
Joseba Barrenetxea,
Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez,
Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde,
Igor M. de Vidales,
Santutxuko Bertso
Eskola,


Igor Zorrozueta,
Iñaki Aurrekoetxea,
Joseba Zelaia.

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoe-
txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000

AURKIBIDEA



▶ Betikoak2	▶ Mahatsberriak20
▶ Iritzia4	▶ Kolaborazio Berezia23
▶ Gaztedi eta Euskaria5	▶ Hezkuntza24
▶ Begoña eta Euskerea8	▶ Bidean Gora, Mendi Ibilbideak.26
▶ Gizarte Bazterketa10	▶ Kirolak: STE27
▶ Bertson dugu! Bertso Bazkaria12	▶ Kultura: Elektrotuna28
▶ Inkesta16	▶ Horoskopoa/Agenda30
▶ Bakarka: Amaia Piedra17	▶ Hileko Argazkia31

Ikusi dozue Ibarsusin zelango autopistie egin daurien? Horixe diñourie kamiño generaletan PMMen ingeruti pasetan direzen guztidexek. Denbora asko ez dala han ibiltzen zieren ijittuak zaldi-mandoakaz, eta orain derrepentien, egun bateti bestera han autopistie deko. Dediouoo!, ta ijittueri etxie bota, ta kanpofubola bere kendu ta ainbatera eroan, ta etziek bere bota, ta bota ez daurienari soloa kendu ta soloan lekuen galipoa. Ta pentsaten dot, honeik kamiñoak ta autopistok... nora joateko prisie daukie, ba? Deriora? Kanposanture? Karran eittie gustaten jakie ta, hala, autopistak egin? Ta benga, Artxanda gora adosientospororaaa. Artxandara betik igon da

trankilidadietegaz, prisa barik, ze Artxandara joaten da trankil egoten ta egune pasaten, ta fubola gustetan jakonak ipinten dau transistorie belarridxen ta tiramillas! Ta karran egin gure dauenak egin daidxela Amaia Piedran modure: praka laburrak, edo txandala, edo kanltzontzilluek edo kuleroak jantzi ta koplak gitxiago kotxiagaz, ze gure denboran Artxandara, Deriora eta Mungigiño bere oinez joaten gintzetan, joan ta etorri bere bai. Ta ganera koplak botateko Santutxuko bertso eskolakoak dekozuez, ze egin daurie Bilboko finala Santutxun ta Galdakaoko batek irabazi. Galdakostarrak bere egin jakuz Bilbokoak ala? Neu bere hasiko naz koplatan...

AIXE-ONA ETXE-MULTZOAREN ESANGURAREN INGURUAN



Etxebizitzen multzo hau Otxarkoagako auzoan dago; egin-eginean bere, auzune horren barruan dagoala, Ugarteko aldean aurkitzen dugu.

Kale hau Urandeleetik hur dago. Euskal izen hori jagoko Avril mendiaren barrenean dagoan orubeagaitik.

Izan bere, Avril mendia edo Monte Avril idatzi behar da, eta ez Abril mendia edo Monte Abril, sarritan ikusten dan legez. Izan bere, mendi horrek jeneral frantses baten abizen edo deitura dugu. Jeneral hori gobernadore jenerala izan zan Bizkaian Napoleonen gudarostearen izenean.

Jeneral horrek mehatxu egin eutson Markinako herriari 1808ko abenduaren 30ean; aurretik, 1808ko urriaren 25ean agindua emon eban, eta esan egin eban bere gudarosteak hara bialduko ebazala, markinarrak euren burua emoten ez baeben.

Edozelan bere, salaketa nagusia Markinako Karmengo komentuko fraideen aurka egin eban, esanaz ordena publikoa arriskuan jarten ebela.

Sasoi haretan, frai Bartolome Santa Teresa sermoilari genduan Markinako komentuan, eta berari esker dakigu jeneral J. J. Avrirek karmeldar traidore bat erabili ebala hangoen aurka. Honelaxe diosku frai Bartolomek zelan idoro eban saltzailea: «Jainkoak hala nahi izanik, nire lehen eginbideak egitean, Avril-en eskuetara heldu baino lehenago hari salatariak bialdutako gutun bat eskuratu neban; kontuz zabaldu eta bertan jakin neban gure erasoaldien egile nagusia...». Salataria frai Tomas de Santa Teresa zan eta giltzapean sartu eben karmeldarrak, besteak beste, komentuari sua emoten ahaleginak egin ebazan eta.

Hala eta bere, Luis de Echevarría y Berrueta, jeneral Avriren idazkaria, haren alde azaldu zan, eta lortu eban 1809ko urtarrilaren 3an salatzailea askatzea. Fraide hori geroagoan Sestaora bialdu eben, baina haren aurkako salaketak geroago eta gogorragoak zirala eta, jeneral Avrirek eta beraren idazkariak erabagi eben karmeldarra sekulartu eta Castañaresera (Errioxako jaiolekura) bialtzea. Azkenean, Frantziara ihes egin eban frantsesakaz batera.

Honen inguruan gehiago jakin gura dauanak jo leike Julen Urkizaren *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak* izeneko liburura.

GOTZON LOBERA REVILLA, Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia (Kultura Saila - Bizkaiko Foru Aldundia)



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura



GAZTEDI ETA EUSKERIA, EUSKAL ALTXORRA ESZENATOKIAN ZABALTZEKO BAT EGINIK

“Euskal Herria, abesten eta dantzatzen duen herria” da ikuskizunaren izenburua

Arrate Diez

Gaztedi dantza taldeak eta Euskaria abesbatzak zazpi herrialdeetako dantzez eta kantuez ikuskizun handia prestatu dute, baita Bilboko ihauterietan estreinakoz egin ere. Espektakuluan, kantua, dantza eta musika tresna ezberdinak konbinatzen dituzte. Hala, bertako musika tresnak (txistua, txirula, gaita, trikitixa, alboka,...), musika tresna klasikoak (kitarra, akordeoia, bibolina, ...) nola tresna modernoak eta perkusiorako tresnak konbinatzen dituzte, dantzari eta abesbatzakoan ahotsekin batera.

Gaztediko txistulariek urte batzuk daramatzate Euskaria abesbatzaren zenbait aktuaziotan parte hartzen. Era berean, Gaztedik 1994an egindako Maskaradan ere, abesbatzakoan laguntza izan zuten. Beraz, behingoz biek batera egindako ikuskizuna prestatzea erabaki zuten, eta hala egin dute "Euskal Herria, abesten eta dantzatzen duen herria" izeneko ikuskizunarekin.

Txistularietako batek proposamen bat aurkeztu, eta Gaztedi-Euskariako komisio batek onartu ondoren,

ekimenarekin aurrera jotzea erabaki zuten, eta arrakasta handiz gainera.

Taldekoen esanetan, prestatutako ekitaldia aretoan egiteko ikuskizuna da batez ere, eszenatoki batean eta argizatze bereziet horniturik. Dantza ezberdinen eszenak dira, herrialde ezberdinetako dantza batzuen eszenak, hain zuzen. Eta ikusgarriena honi guztiari abesbatzaren soinua eranstea litzateke. Jendeak ez du mota honetako espektakulu bat ikusteko ohiturarik, eta lehen aldiz aurkeztu zutenean jendea aho zabalik geratu zen.

MAIATZEAN MAHATSERRIAN

Ikuskizun hau Bilboko ihauterietan Plaza Barrian aurkeztu zuten, baina hemendik aurrera, eta izandako arrakasta kontuan izanda, gehiagotan egiteko asmoa dute. Besteak beste, datorren maiatzaren 12an Berriotxoako polikiroldegian aurkeztuko dute gaueko 10etan.

Bestetik, Udalarekin harremanetan jarri dira espek-



takulua oso gustuko izan zutelako, eta Kultura sailekoek ikuskizun hori gehiagotan egin behar zela komentatu zieten.

Taldekoek diotenez, ekitaldia prestatzeko ez dute denbora larregirik eman, epe bat markatu zuten eta epea betetzen saiatu ziren; hala, azaroan proiektuaz hitz egiteko bildu, eta gabonak eta gero martxan jarri ziren entsaiatzen, martxoan lehen ikuskizuna eskainiz Bilbon.

Hasieran, talde bakoitzak bere aldetik prestatu zuen eta talde biek batera guztira hiru aldiz entsaiatu zuten eszenatokira atera baino lehen. Gaztedikoek zertxobait errazago zutela onartu zuten, orain arteko egitarauaren oso antzekoa baitzen elkarrekin prestatutakoa; Euskeriakoek, aldiz, zailago izan zuten abestiak ikasi behar izan baitzituzten.

Maiatzaren 12an Berriotxoako polikiroldegian egingo dute.

Ikusle asko joan zen lehen ekitaldi hura ikustera, eta orokorrean, asko gustatu zitzaion, jende oso pozik geratu zen eta giro polita sortu zen. Taldekoek ez zuten uste hain ondo aterako zenik, baina azkenean horrela irten zen.

Hemendik aurrerako asmoei buruz galdetean, momentuz, espektakulu honekin aurrera jarraituko dutela komentatu ziguten, udalei proposatuz, jaietan aurkezteko. Jada, lau aktuzio dituzte baieztatuta eta horretan jarraitzeko asmoa erakutsi dute.

Musika, kantu eta dantza konbi-

natzea zaila ote zen galdetean, Gaztedikoek musika eta dantza konbinatzen esperientzia nahikoa erakutsi izan dutela urteetan zehar eta berau abesbatzarekin konbinatzea Euskeriako meritua dela komentatu zuten, Euskeriakoek kantuak beren ahotsei egokitu behar izan baitituzte.

Ikuskizunaren amaieran, Jose Antonio Urbeltzen polka bat dantzatzen dute. Abesbatza doinuak erantsi dizkiote dantza eta musika horri.

Hurrengo urtean Gaztedi dantza taldeak 50. urteurrena betetzen duela eta, egitarauan mota honetako espektakuluren bat sartzeko asmoa dute ere.

Azkenik, talde honetako kideek maiatzaren 12an Berriotxoan eskainiko duten ikuskizunean parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuete Bertoneko irakurle guztiei.

EUSKAL HERRIAN BARRENA

Euskeria eta Gaztediren ikuskizuna "Gure dantza" izeneko kantuaz edegiten da. Segituan, Durangaldeko Dantzari Dantza dator, "Agintariena" eta "Binango" lako piezekin. Hauetarik batzuk abesbatzaren eta txistularien laguntzaz dantzatuko dituzte. Koplak ahozko tradizioetik hartu dituzte. Hurrengo atala "Domingiluen dantza" -1887an dantzatu zen moduan- eta "Gorulariak" betetzen dute. Azken honen bertsoak Juan Antonio Moguelen "Peru Abarka"tik ateratakoak dira. Duela berrehun urte bildutakoak, beraz.

Ikuskizunak aurrera egiteko Bizkaiako tradizioetik segitzen du, Arratiako tradizioetik segitzen du, Bizkaiko kostaldera garamatza. Segituan, Benito Lertxundiren "Erribera" doinuak eta Corteseko



tzea, Urbeltzek paratutakoa.

"Elantxobetarra naiz" kantak eta "Kaixarranka" dantza ospetsuak Bizkaiko kostaldera garamatza. Segituan, Benito Lertxundiren "Erribera" doinuak eta Corteseko

godelet dantza, txorrotzak,... euskal ihauteririk osatuenaren moka-du txiki bat. "Goizian argi hastian" kantu sentikorrak Araba, Lapurdi eta Zuberoako umeen dantzei utzi behar die bide. Bizar



ta. Gorbeapetik jauzi itzela Orhipe-
ra. "Eaurtako dantza", Zaraitzu
haraneko melodia zahar baten gain-
ean dantza galdu baten zuzper-

dantzek Tutera aldeko zaporea
ekartzen dute. "Geurea" abestia-
ren ostean Zuberoako Maskara-
daren ordua da: barrikadak,

dantza -oso modako ez diren irri
dantzetarik bat- Luzaideko kon-
tradantza eta Agur Jaunak dira
ekitaldia ixteko arduradunak.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA MARTXAN



Mahatserrian burututako kanporaketatik Arkaitz Estiballes, Iñaki Aurrekoetxea eta Matxalen Zabaljauregik Bilboko finalerako txartela eskuratu zuten.

*Testoa: Erdoitza Martinez
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa martxan jarri aurretik egin beharreko Bilbo eskualdeko lehen kanporaketa Kafe Antzokian afari giroan martxoaren 24an izan zen, Marta Ortiz, Urtzi Urrutikoetxea, Mikel Galartza, Edu Gomez eta Asier Goñi parte hartu zutelarik. Bigarren kanporaketa Mahatserrian egin zen - Santutxuko Garoa elkartearen hain zuzen ere- Santutxuko Bertso Eskolak antolatuta, Asapala Euskara Elkartearen laguntzaz. Honetan parte hartzaile Iñaki Aurrekoetxea, Matxalen Zabaljauregi, Arkaitz Estiballes, Iskandar Hamawy "Iski" eta Jabier Martinez "Guti" izan zirelarik.

Bilbo mailan antolatutako kanporaketa bada ere, arraroa suertatu daiteke Santutxuko honetan




bertoko bertso eskolako partaideak soilik aritzea. Danon eza-guna da Mahatserriko eskola ez dela Bilboko bakarra, beste bertsolari batzuk Kafe Antzokian jarduten baitute. Baina saioak antolatzeko orduan plazan ibiliak ez diren bertsolarien entrenatzeko

ingurua kontutan hartu zen: Edu eta Asier Antzokian eta Guti eta Iski Garoan kokatuta. Mahatserrian ospaturiko kanporaketa hau bertso bazkari baten bidez egin zen nahiz eta jakin honelakoak ekartzen dituen girotze arazoak... Eta nola ez



gingen Bertonekoak hurbilduko? Horrela, eta tarta zatitxuren bat soberan egongo zenaren esperantzarekin, kamara eta grabagailua eskuan abiatu ginen. Jasotako harrera ezin hobea izan zen; bai, tarta eta guzti! Jende dezente zegoen, txokoan etzen inor gehiago sartzen. Bazkari ederra, kopatxoa eta kafea hartu ostean Agustinek esku-soinua eta Josu Borjak panderoa eskutan, euskal kanta ezagunak joaz giroa alaitu zuten. Jende guztia giro ezin hobean murgildurik zegoen; honela parte hartuko zuten bertsolarien urduritasunak lasaituta... Egia esanda Iskik, Gutik, eta Matxaleneke kanporaketa hau Bizkaikorako lehendabiziko esperientzia zuten; Iñaki eta Arkaitz, ordea, aurrekoetan ibiliak dira. Santutxuko saioari hasiera



emateko puntuaziotik kanpo geratzen diren agurrak bota zituzten; eta orduan hasi zen epaimahaiaren lana -Joxin Iturrioz, Joserra Bilbao eta Mirari Azula-. Egungo gizartearekin bat datozen gaiak suertatu ziren, bertsolarien esanetan gustura aritzeko modukoak zirelarik (nahiz eta sarritan luzitzekoak ez izan). Bertsolariek burutu beharreko lana: ofizioka, bi bertso zortziko nagusian eta hiru txikian; eta bakarka, lau oinak emanik, bertso amaiera emanik, bi bertso doinu eta neurri librean gaia emanik.



Saioan zehar bakoitzak bere neurria erakutsi zuen, nahiz eta batzuen urduritasuna nabaria izan. Ia konturatu barik azken agurra botatzeko unea heldu zen; orduan, barre eta algara arte-

an Arkaitzek berea Iskiri (aurtengo kurtso hasieran bere ikasle zena) eskaini zion. Baina jendeak seguruenik gogoan izango duena Iskik botatakoa izango da, doinua nahastuta bertsoaren hasiera sei bat aldiz errepikatu ondoren, ikuslego guztia abesten jarri baitzuen. Puntuazioa jaso aurretik, eta publikoak euren bertsolaririk gustukoena aukeratzeko bitartean, trikitilariak berriro ere musikaz arduratu ziren. Arkaitz Estiballesek 208 puntu eskuratu zituen, Iñakik 188, Matxalenek 186'5, Gutik 167 eta Iskik 151. Honela ba apirilaren hemeretziaren Bilbo Rocken ospatuko den finalean Arkaitz Estiballes, Marta Ortiz, Urtzi Urrutikoetxea, Iñaki Aurrekoetxea, Matxalen Zabaljauregi eta Mikel Galarza ikusteko aukera izango dugu, denak Santutxuko Bertso Eskolakoak direlarik.



Lanbroa

MESÓN
URETXE
Santutxuko poteo gunean

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!
SAAK

BERTSOLARIEK EUREK
AUKERATUTAKO BERTSO
BANA:

Nor da Hamawi hori,
hau exotikoa!
Izenarekin soilik
kriston exitoa.
Hementxe naukazue,
ez naiz ijitoa.
Gaur egungo promesa,
biharko mitoa;
igual Iturriagaren
anai klonikoa.

Iski lehen agurra

Zortziko txikian, ofizioka: Iski, Matxalen eta Iñaki. Gaia: Zuek hiru aizta zarie, hirurak zagozkie maiteminduta, baina bihotza ohostu deusuen mutil bera da: zuen auzokoa.

Norentzat den mutila
badugu zalantza,
zaharrena da eta
berak nahi du antza.
Ni gaztea naiz eta
badut esperantza.
Nik daukat mutil horrek
behar duen martxa.

Matxalen Zabaljauregi

Asko eztira izango
mutilaren penak,
banaka hartu ta be
sobran hasperenak.
Berak hartu beharko dau
aukera onena:
txikiaren martxa edo
titi haundienak.

Iñaki Aurrekoetxea

Batzuk diote Euskal Herria
gaur ez dabilela zuzen,
sartuta gauden zulo beltzetik
ezin gaitezke irten.
Bakoitzak zenbat egiten duen,
inori ez esan hemen.
Norberak daki bere pausua
noraino heldu daiteken.

Arkaitz Estiballes

Enkarterrian euskaldunen bat
ibiltzen gara herabe.
Hortxe euskeraz bizitzekotan
ia aukerarik gabe.
Bilbo aldera etorri behar
ta hemen ibili xuabe
Sasi artean loreak ere
bizia izaten dabe

Guti

Biktimenganako **Servicio de**
Laguntza **Asistencia**
Zerbitzua **a la Víctima**

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN EIA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarik
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
, Cooperación con la Justicia

ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon
topagunea eta elkarte
egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,
batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org



AMAIA PIEDRA BILBON, KORRIKA- LARIONTZAKO BIDEGORRIAK EGIN BEHARKO LIRATEKE

Testoa: Joana Etxebarria
Irene Berro

Argazkiak: Iñigo Azkona

Amaia korrikalari bikaina dugu, 27 urte ditu eta Santutxun bizi da umetatik. Berari buruz zertxobait gehiago jakin nahian elkarritzeta hau egin diogu aparteko kirolari honen nondik norakoen berri izan dezazuen.



Berton: Zelan hasi zinen mundu honetan?

Amaia: Bederatzi urte nituenean hasi nintzen. Mina del Morro ikastetxean ikasten nuen eta gelatik pasatu ziren ea zeinek egin nahi zituen atletismoko estraeskolarrak galdezka. Beraz, gelako lagunekin batera hasi nintzen, momentu hartan ondo pasatzea eta lagun berriak egitea nuen buruan baina gero hobetzen joan nintzen eta club- ez aldatu nintzen. Club askotatik igaro ondoren, orain bi denboraldi daramatzat Valencia Terra Mar club-ean. Lehenengo mailakoa da eta bigarrenak geratu gara Europako txapelketan.

Berton: Familiako norbaitek egiten al du kirol hau?
Beno, gure aitak txirrindularitza praktikatzen zuen, baina zaletu

gisa baino ez eta amak ez du sekula kirolak egin.


Berton: Kirol honek bizitzeko haina diru ematen du edo beste lanen bat egin behar duzu?

Ni estetizista naiz eta horretan egiten nuen lan atletismoa egiten nuen bitartean. Baina momentu bat iritsi zen, zeinetan konturatu nintzen Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelduna izateaz gain nazioarteko sariren bat irabazi nahi banuen lana utzi beharra neukala. Goizez hamarretatik, ordubat t'erdia arte egiten nuen lan eta arratsaldez lauretatik bederatzia arte. Lana bukatu eta entrenatzera joaten nintzen. Normala denez leher eginda bukatzen nuen.

Berton: Orain Portugalen ospatu berri den mundu txapelketa batetik iritsi zara. Zer moduzko postua lortu duzu?

70. postuan geratu naiz. Dena dela, aurten osasun arazoak izan ditut eta hilabete egon nintzen entrenatu gabe. Nik hobeto nengoela uste nuen baina mundial bat mundial bat da. Ez da berdina estatu mailan lehiatzea, non gutxi gora behera dena ezagutzen duzun (nor kontrolatu behar duzun edo nor ez...) edo mundu mailan lehiatzea. Gainera aurten inoiz baino maila altuagoa egon da lehiakideen artean eta kirolari gehiago aurkeztu dira. Aurreko urteetan 90-100 pertsona inguru izan ginen, aurten berriz 130.

Espainiako txapelketan ere zortzigarren postuan geratu nin-



**TXABI
(BASURTO)**

Zentzu fisikoan eguraldi aldaketei, eta beste zentzu batean, ez ditut pertsona faltsuak agoantzen.




**KARMELE
(BILBOKOA)**

Polenari, sasi-jakintsu batzuei eta matxismoari, bereziki ezkutatu dagoenari.

**MERTXE
(SANTUTXU)**

Niri matxismoak ematen dit alergiak.



**JON ANDER
(BILBOKOA)**

Polenari, arrainari eta askatasun ezari.

**KRISTINA
(BILBOKOA)**

Tabakoari, leku txiki-tan ezin dugulako arnasarik hartu eta gero gainera arropak usain txarra duelako.



**ISABEL
(SANTUTXU)**

Niri goizero seietan altxatzeak ematen dit alergiak handien.



**ENEKO
(SANTUTXU)**

Benetako alergia hautsari diot, baina alergiarik gogorrena faltsukeriari eta askatasun ezari.

**SONIA
(ARABELLA)**

Edozein tokitan "kola" egiten dudanean norbait kolatzen denean.





AMAIAREN TXAPELKETAK

Junior eta promesa kategorian:Lau urte jarraian Espainiako txapelduna 1.500 metrotan. Urte baten "doblete" egin eta 1500m-ak irabazteaz gain 3000m-ak irabazi zituen baita ere.

Senior kategorian: Bi urtez Espainiako hirugarren geratu zen. Txapelketa amerikar baten hirugarren postua eskuratu zuen. Europa mailako bi cross txapelketara joan da eta orain bere laugarren mundialetik bueltatu berri da.

tzen eta normalean lehenengo lauen artean ibiltzen naiz. Baina tira, txapelketa hasi baino hiru aste arinago bertara joango ez nintzela uste nuen; parte hartzea bera meritu handia izan zen.

Berton: Beno, dena den aipa-

tutako postuak ez daude batere txarto.

Ez, baina mundu mailako aurreko txapelketetan beti geratu izan naiz 22.na edo 35.na eta orain 70. Postua lortzea niretzat ez da emaitza ona.

Berton: Eta orain ze lasterketetan parte hartzeko asmoa daukazu?

Beno, ba neguko denboraldia amaitu da; orduan orain apur batez deskantsatuko dut ondoren udako denboraldia hasteko. Aurten olinpiadak dira eta bertara joateko eskatzen duten gutxienekoa badut orain libre dagoen plaza bakarria lortzea geratzen zait.

Berton: Zer moduz dago atletismoaren mundu hau Euskal Herrian?

Nesken artean, olinpia-

detarako gelditzen den postu bakarra bosten artean jokatzen ari gara eta bostetatik hiru bizkaitarrak gara. Horrela nesken artean dagoen maila oso altua dela esango nuke nik. Mutilen artean, duela bi urte jaitsiera nabarmena egon zen baina egoera normaldu da eta maila altua dagoela iruditzen zait baita ere. Espainiako selekzioan zazpi euskaldun egon gara aurten. Orokorrean atletismoarako zaletasuna dago, baina uste dut ez dagoela medio egokirik hau praktikatzeke.

Berton: Medioak aipatu dituzu, non entrenatzen duzuzuk?

Entrenatzerako orduan Etxebarria edo Txurdinagako parkeetara joan behar izaten gara eta 5:30etan edo eguraldi ona egi-



ten duen egunetan txakurrak eta umeak eskibatzen ibili behar duzu. Pfff! Ezinezkoa da. Gainera errepidetik korrika egitea beste aukera bat da baina oso arriskutsua da. Badago jendea kirola egitera joan eta auto- ren batek harrapatu duena.

Berton: Zelan konpon daiteke arazo hori? Nork egin dezake zerbait?

Beno ba, Bilbo aldapatsua da eta hori ezin daiteke konpondu. Baina orain Gugenheim-aren ondoan egin duten pasiatzeko espaloi luze eta zabal horretan bidegorri bat egin lezakete. Ez du ezer kostatzen eta horrela denontzako lekua dago, korrikalari eta txirrindularientzat.

Berton: Inolako dietarik jarraitzen al duzu?

Egia esatea nahi baduzu napolitana eta patata batzuk jan ditut oraintxe bertan, ja ja ja!, zorte handia dut. Edozer jaten dudala ere ez naiz loditzen eta entrenatzeari uzten diodanean gainera ez naiz gizentzen edo pisua galtzen dut. Niri kontra-koia gertatzen zait, oso tentsio baxua dut eta gose naizenean jan beharra dut bestela seko jausten naiz lurrera, askotan

gertatu zaidan bezela.

Berton: Kirol honek badu eragirik zure bizitzan? Adibidez asteburuetan zer egiten duzu?

Badu eragina. Hau nire lana da eta ez dut jai egunik, igandetan ere lan egin behar dut. Normalean gauz ateratzean, mozkortu ala ez, hurrengo egunean ezin zara ohetik jaiki eta nik entrenatu beharra daukat. Egiten dudana zera da bostetan erretiratu beharrean ordu bietan erretiratu.

Berton: Lan honen abantailak eta desabantailak aipatu.

Desabantailen barruan adibidez, ez daukat denborarik lagunekin

entrenamendu aurretik kafe bat hartzeko eta entrenatu ondoren etxeko sofan etzanda egoteko gogorik baino ez daukat. Baina baditu abantailak, asko bidaiatzen dut eta gainera dohainik. Modu honetan leku desberdinetako jendea ezagutzeko aukera paregabea daukat.

Berton : Zein adinetara arte praktikatu daiteke atletismoa?

Ez dago toperik, bakoitzak ikusi behar du. Errentagarri zaizun bitartean, gustuko duzun bitartean eta honetaz bizi zaitezkeen bitartean aurrera! Hori norberak ikusi behar du ez dago erretiratzeko adin ofizialik.

HAMAR GALDERA LABUR

ABESTI BAT: Joaquin Sabinaren edozein.

ETA GUTXIEN: Faltsukeria

KIROLARI BAT: Fermin Cacho

SALSA EDO ROCKA: Rocka

FILME BAT: Seven

MENDIA ALA ITSASOA: Momentuaren arabera

ASTEBURUKO PLAN BAT: Mendian galtzea

Liburu bat edo telebista: Liburu bat

PERTSONA BATENGAN GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA: Zintzotasuna.

TXANDALA EDO BAKEROAK: Txandala

Zure publizitatea hemen

9 4 4 7 3 5 4 4 8



MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Done Jakue Bidea Mahatserrian barrena

Erromesen kostaldeko kaminoa, Mallona eta Artxandako galtzadak tartean, monumentu deklaratu dute

Mundu ezagunaren Finis Terraeko Done Jakuerako bide ospetsuak ba ei zeukan euki sona gutxiagoko adar apalago bat, kostaldetik hurreko lurretatik Compostelara ino heltzen zena. Beso umil hori zen Bizkaian barrena tipitapa sartzen zena eta ibiliaren ibiliz Bilboko Jaun Done Jakueren eleizaren parera ailegatzzen zen. Orain, Eusko Jaurlaritzak monumentu deklaratu du eta bideari lotutako aztarna historiko



gorde beharrekoen artean Mahatserriko bi zehatz-mehatz aipatzen ditu: Mallonako eta Artxandako Galtzadak.

Bi milagarren urte honetako hasieran Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak dekretua eman du Donejakue Bidea "monumentu multzo" izendapenez kultura ondasun gisa deklaratzeko. Erabaki honekin Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban barrena joiazan bide biak -barrukoa eta kostaldekoa- babes-tu ditu. Dekretuak zehatz mehatz erromes kaminoarekin lotutako lekuak eta interesa duten elementuen zerrenda dakar aldean. Eta euren artean, Mallonako Galtzadak eta Artxandako Galtzadak aipatzen ditu.

Egia da, hala ere, bereziki garrantzitsuak diren elementuen artean ez direla agertzen Maha-

terriko galtzadak. Kasu honetan dagoen Bizkaiko galtzada bakarra Bolibarretik Ziortzako kolegiatara abiatzen dena da. Hala ere, dekretuak berak dioenez, "Santiago Bideko galtzada harriztatuak babes-maila bakarrean sartzen dira". Ez dago, beraz, alderik.

Bide zatiok iraun dezaten Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzek obra guztiak galtzadak zaharberritzeko asmoz egingo direla zehazten dute. Elementuren bat ezin bada berriztatu "materiala, kokapena edo kota aldatu gabe, ordeztu egingo da". Gainera, harriez estalitako zatitak "oinetzkoak edo zaldiak baino ez dira ibiliko". Ezelango autorik ez, are gutxiago makinariarik.

Babes-aginduok "biderako kaltegarriak izan daitezkeen ekintza

guztiak debekatuta egongo direla" azpimarratzen dute. Besteak beste, galtzadatik hamar metro-ra ezingo da zuhaitzik ebagi ezta landatu ere. Eta bidetik 30 metro baino gutxiagotara eraikitzea galazota dago. Azkenik, bi metro-ra dagozen arbolak, euren sustraiek kalterik ekar lezaketelakoan, ebagiko dituzte.

ARTXANDAKO GALTZADAK


Kostaldeko bidea Arranobate menditik sartzen zen Bizkaian, Mutriku eta Berriatua artean. Handik Markinara eta, segituan, Bolibar, Ziortza (Zenarruza), Arbazegi-Gerrikaitz, Gernika, Muxika, Larrabetzu eta Lezama zeharkatu ostean Zamudioraino iristen zen. Herriotan hainbat ermita, dorretxe, zubi, eta gainerrako monumentu babestu ditu

Eusko Jaurlaritzaren dekretu honek, Done Jakueren bideagaz loturirik zeukatelakoan.

Hemendik eta Bilbora heltzeko asmoz Sondikako lurretatik igarota, Izartza auzoaren gainera, Artxandako galtzadan gora abiatzen ziren erromesak Mahatserrian sartu arte. Gaur egun galtzadok Bilboko lurretan dagoz.

MALLONAKOAK

Artxandatik behera ibiltariak gaur egun Begoñako basilika dagoen alderditik jaitziko ziren. Bertatik Mallonako galtzadak hartuta Bilboraino iristea besterik ez zeu-



katen. Gaur egungo galtzadak ez dira, jakina, erromesek XII-XIV mendeetan -Donejakue bidearen gori-gorian- zapaldu zituztenak. Oraingoak XVIIIean egindako barriztapenaren emaitza dira, albo batean harrizko bidea eta bestean eskilarak dituela.

XIV. mendeko erromesa Mallonako galtzadatik behera egin ostean Bilboko harresien aurrean agertuko zen. Hortxe bertan Zamudioko Ataria - Portal de Zamudio- zetan, herri horretatik zetorren bideari zegokion atea,

hain zuzen. Bertatik sartu eta Jaun Donejakueren eleizaraino iristea besterik ez zeukan. Gaur egunean zaharberritze lanetan dagoen katedralaren Aingeruaren atean oso nabarmen dago zizelkaturik erromesen maskorra. Esan daigun, bide batez, aditu batzuen iritzi, itsasoaren mareak orduan ia ia Aingeruaren atea milizkatzera iritsiko zirela, gaur egun Ibaizabal handik urruti badago ere.

Hiru edo gehienez zazpi kale besterik ez zen garai hartako Bilbo. Hala ere, harresien barruan bazeukan erromesen beharriak asetzeko beste hornidurarik. Izan ere, ibiltarientzat ospitalia -ostatu emateko tokia- eta baze- goen. Behin indarrak hartuta pe- lgrinak Abando hartu, Kastrexana- ko Deabruaren Zubitik Barakaldo- ra igaro eta Ezkerralde- tik, Sopuer- tara eta handik Gaztelako erresu- mara. Bazeukan euki oraindik zer ibilia.

ANGEL
 HARATEGIA - URDAITEGIA

 Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

DARDARA
 TABERNA

 S.M. Ascension plazan
 Santutxu

Baserritik
 etxerainoko
 OKELA ZERBITZUA
 Eskerak eziteko:
 - Telefonoa eta Faxa: 94 433 48 02
 - Ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
E.H.N.E.
BASERRITIK ETXERA: 43000204204 204204204
 Taberna: 11 40 300 LEMOA. Tfnoa: 94 433 43 04

E R R I K A R I A

E R R I K A R I A

ZURBARANEK ONGI ETORRIA EDORTA IBARZABAL PRESO OHIARI

Martxoaren 25ean Begoñaldeko Zurbaranbarri auzoan ia 3 urtez espetxeratuta egon den Edorta Ibarzabali omenaldia eskaini ziotean bertako lagun, erakunde eta elkar-teetako kideek. Iluntzeko 8etan hastekoa bazen ere -ingelesak ez gara gero... -, apurtxo bat beranduago eman zioten hasierari bi neska dantzariak.

Begoñako Ezker Abertzaleko kide batek Edorta espetxeratua egon izanaren zergaitia azaldu zuen, gogora ekarriz zelan 1996an atxilotua izan zen muntai polizial baten erdian eta Bilboko beste gazte batzuekin batera. Istorio honen laburpena honako hau da.

Espetxean bi hilabete igaro zituen, eta ondoren, epaitua "kale borroka" deritzona leporatuz, 5 urteko zigorra ezarri zion epaileak, Martutenera eramana izanik. Iazko irailean zigorraren 3/4ak bete zituen. Halere, espetxean jarraitu zuen. Bitartean, espetxeetan preso politikoei aurrera eramaten dituzte borroka ezberdinetan parte hartu zuen, hala nola kontzentrazioak, txapeoetan, eta oraindik euren eskubideen eta Euskal Herriak dauzkaten eskubideen alde eusten dioten gose greban ere, lehenengo txandan. 29 egun luzean zehar ekin zion baraualdiari, ospitalean 16 bat kilo gutxiagorekin amaitu zuela. Hau dena azaldu ostean eta presoaren egoeraz jarraituz Senideak-eko kidea den Jone Artolak esku hartu zuen presoek eta euren senide eta lagunak jasaten duten dispersioak mintzatuz, eta era berean, auzokoa den Inma Patxoren egoera gogoratuz, preso hau Alacant-eko



espetxean dagoelarik orain dela ia 10 urte.

Geroago opariaren txanda iritsi zen, auzoko elkarte, erakunde politikoa eta lagunak jaso zituela pitin bat hunkiturik. Honek eta urduritasunak ez zion eragotzi hitz egiteko orduan. Espetxean utzi dituen lagunak aipatuta, denon konpromisoa eskatu zuen bakoitzaren neurrian dauzkagun erronkei aurre egiteko.

Auzoko kaleetan manifestaldia egin ondoren deneri egon izana eskertuz, "Eusko Gudariak" abestuz etenalditxoa egin zen, izan ere amaitu, afari eder batekin amaitu zen omenaldia.

IBARSUSIN "EKIALDEKO SAHESBIDEA" -Variante Este-deritzon errepide berria eraikitzeko lanak uztailean amaituta nahi ditu Diputazioak. Bilboko sarrera honetan Egirletatik -Santo Domingotik- etorriko den autobidea Zumalakarregi etorbidearekin eta Boluetatik datorrenarekin lotuko dira.

Lanok Bilboko sarbideen plangintzaren barruan daude. Plan horrek hiriburua bizkaitarra autobide-eraztun batez inguratzea du helburu, honela gaur egungo auto pilaketak ekidingo direlakoan. Dena dela, Ibarsusiko obrak eztabaida gogorrak eta auzitegien esku hartzea eragin dituzte. Otxarkoagako auzo elkarteak legez kanpokoak zirela iritzi eta epailearengana jo zuen. Ondorioz, auzitegiek birritan geldiarazi zituzten lanok, harik eta Diputazioak beharrezko neurri batzuk -ingurunean eragindako kalteen txostena, esate baterako- bete zituen arte.

Ekialdeko saihesbidea Egirletako Oruetan hasiko da eta Otxarkoagaren albotik Ibarsusiraino iritsiko da. Zati hau da uztailean amaituko ei dena. Handik, errekarren al-



tzotik Miraflores gainera igoko da hantxe egindako zubi erraldoi berriarekin lotu arte. Autobide puska hau oraindik egiteko dago eta ez dirudi epe laburrean gauzatuko denik.

BOLUETAKO TREN GELTOKIAN EGOTEKO ARETOA

Eusko Tren konpainiak itzaroteko gela bat atondu berri du Boluetako bere geltokian. Obra hau nasetan Durango, Bermeo edota Donostiarako trenen zain egon behar diren bidaiarientzat txoko egoki bat presatatzeko helburuaz egin du. Izan ere, badirudi beze-

roek eurek eskatutako zerbitzua zela. Enpresak berak emandako datuen arabera, lanok zazpi milioi pezetako inbertsioa eskatu dute. Areto berriak komunez, telefonoz, edateko zein jatekoak banatzen dituzten makinez eta itsuentzako seinalaz hornitu dute. Kontutan hartu beharra dago Boluetako geltokiak Eusko Treneko lerroez gain Metroaren amaierarekin lotura duela.

Guiot de Beaugrant iturgina: Faltsutzailea ote?

Mikel ZABALA/Ikertzaila

Aurreko uda osoa eman behar izan nuen Valladoliden, bertan dagoen Simancasgo Artxibategian hainbat agiri bila. Oporraldia pasatzeko era aproposena ez bada ere, bertan hautsez bete-

ta eta usteldurik dauden milaka paper-sorten artean zenbait bitxikeri topa daitezke. Hona hemen horietariko bat.

Guiot de Beaugrant, abizen bereko eta jatorri flandestargo bere familiarikoa beste hainbat kide bezala, garaiko inguruan izandako sortzaile polibaiodunetarikoa dugu. Nahiago baldin bada, Bepizkundeko kide eredugarritzat har dezakegu.

Famili hau oso bestelako bi iharduera nagusitan nabarmendu zen. Alde batetik, imajinagintzan. Korronte berriak sortzeaz gain, garaiko artelan onenatarikoak egingo zituen XVI. Mendeko lehen erdialdean. Besteak beste, Portugaleteko Andra Mariko erretaula, edota Bilboko Donejakuekoa (azkenengo hau txikituta izan arren, gaurregunean beronen aztarnak Alde Zaharreko Euskal Museoa ikus daitezke).

Baina horretaz aparte, ingenieritza edota iturgintza arloetan ere izugarriko ahalmen handiko lanak asmatu edota bete egin zituen. Alde batetik, itsasadarraren nabigarritasuna hobetzeko plana prestatu zuen, Areetako oztupoak gaindi zitezkeen. Nahiz eta proiektua azkenean bertan behera gelditu, Aro Berri osoko eskualdeko proiekturik ausartenarikoa dugu.

Bilboko Udalaren aginduz, bestalde, iturgintza arloko zenbait lan bete zituen 1543 eta 1552 bitartean. Berauen artean osatuena Abusuko Bolintxu urtegiko ura bideratzea izan zen, El Pontón gurutzatu ondoren, Bolueta eta Atxuri zeharkatzen

zituena eta Zabalbide aurreko uhaskaraino zihoan tutueria eraikitzen. Honela, Bilboko ur horniketa antolatu zuen, lehenengo aldiz. Izan ere, tutu haien ibilbidea gaurregun arte mantendu izan da beraien oroitzapenetan laster berriztuko omen den Los Caños deitutako pasealekuan.


Baina ur-horniketa lanak hasi eta handik gutxira Guadalajarako Jordán de Mece-ta izeneko beste iturginak gure Guiot salatu egin zuen. Jordán hark zioen Beaugrantei eskatu egin zizkiola planoak beronen lur eremuren bat urtu ahal izateko, baina aitzakiaz baliatuz Bilboko Udalarentzako lanetan faltsutu egin zuela berak Madrilgo gotorlekurako asmaturiko prozedura.

Izan ere, zergak ordaindu ondoren, erret baimena lortu zuen asmakuntza berak bakarrik erabili ahal izateko. Salaketa zilegi zenentz ez dakit. Edonola ere, Guioten jarrera nahiko adierazgarria da: justiziak luzatutako deialdiaren berri izan bezain laster hanka egin zuen etxetik.

Ikuskatzaileek tutueriak aztertu eta bien arteko funtsezko ezberdintasunik ez zegoela adierazi zuten, beti ere kontutan hartuta Guiotek berunez osatu zituela, alde aurreko Madrilgo Jordánek zurezkoak ziren bitartean. Honela, teknikarien arabera, flandestarraren emaitza bestea baino tinkoagoa izateaz gain,

merkeago suertatzen omen zen. Are gehiago, Guiotek ere, epaiketa amaitu aurretik, erret baimena eskuratuko zuen (debalde gainera) aurrerantzean asmakuntza berak bakarrik erabili ahal izateko.

Hala edo nola, Guiotek oso bestelako zigorra jasoko zuen. Inksizioak, luteranoak zirelako ustetan, familia desagertaraziko zuen handik urte gutxira.



GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK


Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908-45 16 22



SANTVTXV SPORT

D eredia jaun eta jabe Mahatserriko eskola publikoetan

Aurrematrikulazio kanpain hamar umetatik bat baino ez erdal hezkuntzara



Mahatserriko eskola publikoetan datoren urterako egindako 2 eta 3 urteko umeen aurrematrikulazioek argi eta garbi utzi dute gurasoek euskal irakaskuntzaren aldeko apustua egiten dutela. Lehenengo aldiz euskara hutsezko ereduak (D) umeen erdia baino gehiago eraman du eta, bi urteko haurren kasuan, %60tik gora dabil. Bere igoera hamabi puntukoa izan da, B eta batez ere A eredu erdaldunaren kaltean.

Datorren irailean eskola publikora joango diren hiru urteko umeen %57tik gora D euskal ereduaren ikasiko du. Beste %30ren bat B eredu elebiduneari euskaraz eta erdaraz erdibana- izena emanda dago eta %11 baino ez erdal lerroetan (A eredu). Mahatserriko aita-mek, beraz, hautu argia egin dute aurtentzen, aurreko urteetako joerari eutsiaz. Gero eta gehiago dira euren seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi dutenak. Ikustea besterik ez dago, bestela, igaz hiru urteko umeen %45 izan zela D ereduaren apuntatu zutena, Bk %32 eraman zuela eta %23 A ereduak. Indarrak euskara hutsezko irakaskuntzaren alde makurtu dira, nabarmen.

Zenbakitan, hiru urteko ume kopurua bere horretan mantendu dela kontutan hartuta, D ereduaren gorakada ikusgarria da. Igazko 149 aurrematrikulazioetatik aurtengo 192ra igaro du. B ereduaren zertxobait jaitzi da -108tik 102ra- eta erdarazko lerroetako izen-emateak 77 umetatik 39ra murriztu dira. Azken datu honek urtebetean eredu erdaldunak aurrematrikulazioen %50 galdu duela esan nahi du.

BI URTEKOAK

Etorkizunari begira ere euskararen aldeko prozesua areagotuko dela ematen du, bi urteko umeen aurrematrikulazioak aintzat hartuta behinik behin. Aurtentzen emandako 317 umeen izenak 197 (%62) D eredu bideratu dira. Lerro elebidunek 89 aurrematrikulazio jaso dute (%28) eta A eredu erdaldunak 31 baino ez (%9.7).

Igazko datuak alderatuz gero, D ereduak bi urteko 42 ume gehiagoren eskariak hartu ditu. Gainerako lerroek galerak besterik ez. B ereduak 23 aurrematrikulazio galdu ditu eta erdal irakaskuntzak 15.

Azken urteotako joera apurtzen duen datu bat azpimarra daiteke, bestalde. Bi urteko umeen aurrematrikulazioek gutxi behar zertxobait gora egin dute, igazko 313tik aurtengo 317ra igaro baita.

AUZOZ AUZO

Aurrematrikulazioak auzorik auzo aztertuz gero, emaitzak esanguratsuak suertatzen dira ere. Honela, Santutxu-Solokoetxan B eta D eredurik besterik ez dago eta azken honen nagusitasuna erabatekoa da. Hiru urteko umeen %80 inguru euskara hutsezko irakaskuntzan izena emanda dago. Uribarrin be euskal ereduak baino ez dagoz eta aurtengo kopuruak makalak izan badira ere, bi urteko umeen datuak lehengo urtean modukoak izan dira.

Zurbaran aldean hiru ereduak aukeran egonda be, bi ume baino ez dago A ereduaren. Lerro elebidunak 12 matrikula eta euskarazko hezkuntzak, ostera, 59, igazko datuak sekulako igoera. Bestelakoa da Txurdinagako egoera, bertako lau ikastetxetan B eredu nagusi baita. D lerroak atzetik datoz hurrehurrean erdal irakaskuntzak oraindik %15aren gaineratik dagoela. Otxarkoagan oraindik A eredu gailen, nahiz eta beherantz doan, eta D ereduak ez du sustrairik bota. Azkenik, Boluetako Mina del Morron A eta B baino ez dago, baina Otxarkoagan legez, oso ume kopuru urria dute.

ESKAINZA

Gurasoen eskariak ezin aseturik hiru urteko umeentzat lerro gehiago zabaldu behar izan ditu Administrazioak bi eskolatan. Pio Baroja ikastetxean B eredu gela bat gehiago ipini dute 34 aurrematrikulazio jaso dituztelako. Zurbarango eskolan, ordea, D eredurik ez zegoen arren ume gehienak eraman ditu. 15 umeentzat gela euskaldun bat sortuko da.

Oro har ikusita, Mahatserriko eskoletan

D eredurako 11 gela, A eredurako 7 eta 6 gela elebidun eskaini zaizkie gurasoei. Esan dugun legez, D eta B ereduaren demandak gela bana gehiago ekarri du. Gela bakoitzeko ume kopururik (ratio) txikiena A ereduari dagokio. Izan ere, gela erdaldun bakoitzeko 5,5 ikasle ateratzen da, batzatek. Eskola elebidunetako neurria altuagoa da -14,5- eta "masifikazio" -izen hori erabiltzea egokia izan ez arren- handiena D ereduaren datua. Bertan gela bakoitzeko batzatek 16ra iristen da.

Datuok eskuetan, argi dago A ereduaren eskaintza gurasoen eskarien gainera aise dabilela. Erdarazko gelak eskaintza

osoaren %30 inguru baziren ere, aurrematrikulazioen %11 baino ez dute eraman. D eredu euskaldunak, ostera, eskaintza osoaren %45 izanda, umeen %57 inguru batu ditu.

Ez dago azti

igerlearena egin beharrik eskola publikoko A eredu erdalduna atzera ezinezko desagertze bidean

dagoela esateko. Mahatserriko umetxoak, gero eta gehiago, euskaraz datoz.



MAHATSERRIKO HAUR ESKOLAK (I)

Francisco de Goya haur eskolatik adierazi digutenez Bilbao Bizkaia Kutzak ez die inongo laguntza ekonomikorik ematen. Otxarkoagan BBKko haur eskolarekin harreman onak dauzkate, materiala trukatu dute baita BBKko haur eskolan itxaron zerrendan zeuden ikasle batzuei Goyako aukera eskeini zaie baina BBK ez die dirurik ematen. Gure artikuluan bestela uler daitekeela eta hona hemen zuzenketa. Beste aldetik gure artikuluan esaten genuen egoera normalduago zegoela Otxarkoagan Bilbo Zaharrean baino eta azaldu digutenez egoera normala da haur eskola bietan. Beraz, ondo esanak kontuan hartu eta txarto esanak parkatu.

AURREMARIKULAZIO DATUAK

Ikastetxea	3 urte D eredu	3 urte B eredu	3 urte A eredu	2 urte D eredu	2 urte B eredu	2 urte A eredu	Matrikulazio urtea
Karmelo	31	-	-	36	-	-	1999
	47	-	-	36	-	-	2000
Txurdinaga	42	18	-	41	23	-	1999
	41	19	-	49	19	-	2000
Pio Baroja	-	33	8	-	36	15	1999
	-	34	11	-	27	2	2000
Birjinetxe	2	-	12	-	-	13	1999
	9	-	1	18	-	0	2000
Artatse	-	-	19	-	-	6	1999
	-	-	8	-	-	5	2000
Goya	5	-	13	-	-	-	1999
	2	-	5	3	-	7	2000
Lope Vega	-	-	11	-	-	9	1999
	-	-	9	-	-	9	2000
Briñas	21	16	-	36	18	-	1999
	36	22	-	30	17	-	2000
Mina Morro	-	7	5	-	7	-	1999
	-	9	3	-	8	5	2000
Uribarri	18	10	-	15	-	-	1999
	10	6	-	29	-	-	2000
Zurbaran	-	24	9	-	28	3	1999
	15	12	2	12	18	3	2000
Zurbaranbar	30	-	-	27	-	-	1999
	32	-	-	20	-	-	2000
OROTARA	149	108	77	155	112	46	1999
	192	102	39	197	89	31	2000

DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza

KALAMUA (967 m.) Isua-tik

Eibarretik Arrateko Santutegirako errepidean lau kilometrotara gutxi gora behera eta 79 km. jartzen duen mugarririk hurbil "Isua" mendatea topatuko dugu. Hemen utziko dugu kotxea (A), Jatetxearen aparkalekua.

Txalet baten ezkerretik doan pista zabaletik abiatuko gara eta hamar minututan "Akondia" atsedean toki polit batean egongo gara. Hau igaro bezain laster, ezkerretik zuri-gorritzko ikurraz oso ondo markatuta dagoen pistatik (B) ibiliko gara.

Harrizkukurritzea (742 m.) eta Garaguen (701 m.) mendiak inguratuz pista zabal batetik jarraituko dugu oso eroso. Bidean bi pista ikusi eta gero pista bat aurrerago bi aterpe aurkituko ditugu ia lepoan bertan. Hementxe amaitzen dira zuhaitzak (C).


Orain tontorra ikusten denez zuzen egingo dugu gorantz azken zati gogorrean landan zehar, tontorra gainditu arte "Kalamua" (767 m.). Tontorrean goierpin eta txartel kutxa batzudaude.

Ibilaldi osoa hiru ordu laurden inguru.

Itzultzean nahi badugu "Isua" mendatetik "Urko" mendia egin dezakegu (791 m.), horretarako oso ondo markatuta dagoen bidezka batetik

igongo gara tontorra lortu arte, hiru ordu laurden.

Bidean: PINUAK eta ALERTZEA ikus daitezke.



Unai Cuevas Santutxu Txirrindulari Elkarteko Junior taldea Iruñako itzulian.

Aurten, Santutxu Txirrindulari Elkartek 50. urteurrena betetzen du (Zorionak!). Bere lehen lasterketak, Sociedad Begoñesaren barne burutu zituen eta 1952az geroztik, aktetan, Santutxu Txirrindulari Elkartea bezala agertu izan da. Oraindik ere taldea sortu zuteneko 5 bazkide bizirik dira eta ondorioz, denboraldia bukatzerakoan -eta urteurrenaren ospakizunen barne- omenaldia eskainiko diete Artxandan antolatuko duten bazkarian. Aurretik, txapelketa soziala deiturikoa egin ohi dute eta bertan elkarteko bazkide guztiek ibilbide bat burutzen dute bizikletaz. Urteurrenerako antolaturik dituzten ekin-tzen artean Euskal Bizikletaren bi etapen antolaketa lanak nabarmetzen dira: bata Txurdinagan bukatuko da eta bestea Guggenheimen hasi. Hau, maiatzaren bukaeran izango da. Beste ekintza aipagarriak ere burutuko dituzte elkartearen mende erdia ospatzeko. Hala hola, irailerako Gran Vía-ko eskolen arteko lasterketa prestatuko dute, Euskadiko ziklo-kros txapelketa antolatzen ahaleginduko dira eta txirrindulari elkartea auzoan aditza emateko asmoz ekintza ezberdinak prestatuko dituzte.

Santutxu Txirrindulari Elkartetik Iñaki Gaston edota Arsenio Gonzalez bezalako txirrindulariak atera dira.

Elkarteari dagokionez, txirrindularitza eskola, kadete eta junior edo jubenil taldeetan banatzen da. Lehenengokoan 8-13 urte bitarteko gaztetxoak aritzen dira eta kadete eta jubenil mailatan 14-18 urte tartean dabilzan gazteak. Maila bi hauetan, lehen eta bigarren urtekoak ezberdintzen dira. Gaztetxoaren taldearen babesa Iberdrolaren esku dago eta beste bi taldeena, aldiz, Ciclos Zuberori dagokio. Bestalde, automobil laguntzaileak Boluetako Migmar tailerrei esker lortu dituzte. Kadete eta junior mailan 25-30 txirrindulari inguru dituzte aurtengo denboraldirako eta eskoletan, bestetik, "oso pobre gabilza, arazo ugari ditugu eskoletako gaztetxoak lortzeko momentuan" aitortzen du Meritxel Madariagak, elkarteko presidenteorde, idazkari eta jubenilen taldeko zuzendaria denak. Hemen ere kirolaren errege den futbolaren aurkako

borroka agerian geratzen da, kirol honek gazte asko kentzen baitzikie. Txirrindulari gehienak, Santutxu eta bere ingurukoak dira nahiz eta Deustua eta Mungiako jendea ere izan. Ziklo-kroseko denboraldia egiteaz gain zikloturista talde bat ere badute. Hauek, euren martxak antolatu eta laupabost eguneko ibilaldiak egiten dituzte.

Bizikletaren gainean lehiatzen hasi aurretik, txirrindulariek euren kontura entrenatzen dute. Eta lasterketak hasi baino hilabete bat lehenago, astebururo, talde osoarekin hasten dira entrenatzen. Denboraldia hasita, Bizkaia zein Nafarroa edota Kantabrian aritzen dira astebururo lehian. Uztaila eta abuztuan, astean zehar ere korritzen dute sari nagusi ezberdinetan. Kadeten egutegia apiriletik iraila bitartean luzatzen da; jubenilena martxotik urrira eta ziklo-krosekoak azaroan hasi eta urtarrilean bukatzen dute. Garaipenen arloan, beste batzuen artean, Bizkaiko erlojuz kontrako txapelketa irabazi dute bai bakarka bai taldeka ere. Gainera, aurtengo denboraldiko lehena eta Bizkaia mailan lasterketa garrantzitsuenetarikoa den Udaberriko Sari Nagusia bereganatu dute. Honen inguruan lasai agertzen da Meritxel eta adierazi ziguneko denboraldia aurrera joan ahala garaipen gehiago lortzeko parada izango dute. Aipatzekoa da, Santutxuko Txirrindulari Elkartetik Iñaki Gaston edota Arsenio Gonzalez bezalako txirrindulari ospetsuak pasatu direla. Eta nahiz eta hain ospetsuak ez izan profesionalentara heldu diren beste batzuk ere, Carlos Galarreta, besteak beste. Txirrindularitza Federazioak ematen dituen diru laguntzak elkartek ateratzen dituen lizentzien araberakoak dira. Honetaz gain, elkartea osatzen duten 300dik gora bazkideen kuotetatik edota loteria saltzetik ere diru sarrerak izaten dituzte. Hala ere, Artxandan antolatzen duten Bilboko Udaleko Ziklo-Kros Sari Nagusia prestatzerakoan, subentzioak eskatzen dituzte. Gogoratu beharra dago, sari hau batzutan Euskadiko Txapelketa izaten dela eta beste batzutan nazio-arteko lasterketa.

"BELTZIEZ JANTZITA DOAN TUNAREKIN NAHASTEEN GAITUZIE"



Iratxe Ruiz

Ezagutera goazen musika taldea ez da orain artekoak izan diren modukoak: jotzeko ez baitute eskenatoki ezta entxufeen beharrik.

Zer esan nahi dugun ulertzen ez baduzu, adibide baten bidez, ziur jakingo duzula (barkatu konparaketa, baina adibide ezin hobea da honakoa). Mahatserriko TROTAMUSIKOAK dira,.....ELEKTROTUNA taldea, alegia.

Nahiz eta pasa den irailean jotzen hasi ziren, gure auzoko kaleetan zehar taldea entzuteko aukera izan dugu. Gainera, zenbait jaietan egon dira, hala nola telebistako pare bat saiotan.

Taldekidea den Endikarekin egoteko aukera izan dugu eta Elektrotunaren

**TALDEA:
ELEKTROTUNA**

**PARTAIDEAK:
IBON; BAXU ELEKTRIKOA
ENEKO; KITARRA ELEKTRIKOA
ASIER; KAXA ETA PLATOAK
ENDIKA; AHOTSA ETA BONBOA**

ibilibideari dagokionez zera kontatu digu:

Berton: Azaldu zein den jotzen duzuen musika mota:

Endika: Beste taldeen bertsioak jotzen ditugu. Gehien bat hemengo taldeen abestiak "La Polla", "Kortatu" eta antzerakoak. Euskaraz, erderaz

eta ingelesez: punk klasikoa orokorrean. Oraingo 30 bat abesti ditugu erreperitorioan, aurrerago beharbada, gure abestiak egingo ditugu,...

Berton: Orduan nondik dator "elektrotuna" izena?

Endika: Egiten duguna adieraziko zuen izena aukeratu nahi genuen, izen propioa beharrean. Txarangek tronpeteta eta holakoak jotzen dituzte eta nola tunek gehien bat sokazko instrumentuak jotzen duten,...

Berton: Nori bururatu zitzaion honako taldea osatzea?

Endika: Aspalditik genuen ideia da. Pixkanaka aparatuak lortzen joan gara, nahiz eta oraindik dena prest

ez dugun. Beste taldeetan egonak gara: Ibon eta Asier, "Su Santidad" taldean egon ziren eta ni, "Noiz arte?" eta "Los Canallas" en. Institutuko talde batetik elkar eza gutzen genuen.

Berton: Zer da beste taldeengatik desberdintzen zaituztena?

Endika: Rock talde bat gara baina ibiltzen jotzen dugu, kalejira baten moduan. Jendea dagoen tokira goaz, tabernaz taberna sarritan.

Gainera ez dugu ez eskenatokitik ez entxuferik behar eta eguraldi ona egiten badu, mendian entsaia dezakegu.

Berton: Horrela aritzeak oztopoak izango ditu baita ere...

Endika: Gehien bat instrumentuen kontua. Elektriokoak direnez, euria egiten duenean kontuz ibili behar dugu.

Berton: Zelan ikusten duzue musikaren mundua, profesionalki aritzeko?

Endika: Argi duguna, jendeari gustatzen zaiola da, harrিতта geratzen da. Leku askotatik ari da jendea deitzen, baina normalean "por la causa" jotzen dugu. Diruaren kontua oraindik, oso zaila da. Orain arte ez digute ez tratorik ez ezer ordaindu. Jakina, zaletasunez egiten dugu hau guztia, baina lekuetara mugitzeko gastuak daude. Instrumentuak pila bereziak behar dituzte, eta horiek guk egin behar izan ditugu baita ere.

Berton: Non jo duzue bada?

Endika: Santutxun pare bat aldiz, gero Garoñako martxan egon ginen (*argazkietan*) eta Uribarriko jaietara gure kabuz joan ginen. Ezkontza despedida bat izan da azkenekoa.

Berton: Hurrengo emanaldirik, noizko?

Endika: "Elkartasun egunean" joko dugun ez dago ziurtatuta oraindik. Orain jaiak hasten direnez ikusiko dugu,...

Berton: Bizi al duzue egoera dibertigarriren bat?

Endika: Aipatu dudana ezkontza agur horretan, jendea bazkaldu ostean nahiko "alteratuta" zegoen eta gure artean jarri zen. Futbolin bat gure gainera erortzeko arriskua izan genuen. Gainera trastu guztiekin, edariak gure gainera botatzen zituzten,...

Berton: Eta "elektrotuna" izena inguruan, ez zaizue inolako errakuntzarik suertatu?

Endika: Bai, ...Jai batzuetan jotzeko deitu ziguten eta beraiekin hitz egitera joan behar izan nintzen. Gure argazkiak ikusita harrিতта geratu ziren. Tuna bat ginela pentsatzen zuten, beltzez jantzita doazenak,...

Berton: Eta zer erantzun zenien?

Endika: "Beltzez jantzita ateratzea nahi baduzue, orduan garestiago izan beharko da. Ordaintzen baduzue bagatoz tunaz jantzita, ... Ja,Ja,Ja!!!"



"Mendian entsaia dezakegu baina euriarekin kontuz ibili behar dugu"



"kalejira Punkya da gurea"



INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA -
SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Bikoitz
ARROPAK ★
ZILARRA ☾
OPARIK ★
Darl. Arsuaga SANTUTXU
Tel & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

**ZURE
PUBLIZITATEA
HEMEN
94 473 54 48**

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Ez dirudi zure momenturik onenean zaudenik. Hobe izango da orain erabaki garrantzitsurik hartzen ez baduzu, beste baterako utzi eta ziurraski gauzak ondo irtenko direla!
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Udaberriak zure arima berritu al du? Orain alaituago eta biziago ematen duzu, beraz halaxe jarraitu! Honek beste ekiko harremanetan onurak ekarriko dizkizu.
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Jadanik nazkatuta zaude lana bilatzeaz? Trankil mutil, ez etsi! Laster aurkituko duzu zerbaite eta horrek nahikoa emango dizu lagunei dituzun zor horiek itzultzeko.
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Orain ez al da berandu eskuak burura eramateko? Bai, badakizu zertaz ari naizen. Neguan zehar jan besterik ez duzu egin eta orain bapatean gehiegizko kilo horiek kendu nahi? Agian gimnasia pixkat eginda...
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Zuk bai zorte ona duzula! Kartek diotenez, oraindik bikoterik ez baduzu adi Aste Santuko oporretan...Badirudi zure printzipe urdina topatuko duzula azkenean!
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Errealitatetik alde egiteak eta etxean isolatuta geratzeak ez ditu zure arazoak konponduko. Mugi hadi eta aurre egin eiozu egoera horri. Ikusiko duzu nola ez den horrenbesteko...
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ekainean ikasgai guztiak gaintitzea espero duzula? Ba, bide horretatik ez duzu gauza handirik lortuko, beraz altxa zaitetz behingoan sofatik eta... gero gerokoak.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Aurtengo polena indarrarekin agertu da zure aurrean eta jadanik ondorioak sumatu dituzu? Joan zaitetz, ba, dirua aurrezten...zergaitik?arazo horrek muki zapi asko eskatzen ditu eta.
- Sagitarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Bidai bat egiteko asmotan al zaude? Orain dator txarrena: maleta prestatu behar duzu eta zer sartu jakin ere ez, ezta? Lasai, soilik ezinbestekoa dena sartu, gainontzekoak traba besterik ez dizu egingo.
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Kafe ugari edateak badakizu ez dizula onik egiten eta gehiegi aldatzen zarela, beraz zure ingurukoek zu agoan tatzea nahi izanez gero badakizu zer egin behar duzun...
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Asteburu honetan ere etxean gelditzea pentsatu duzu? Hori ez doa zure izaerarekin, zer gertatzen zaizu? Atera zaitetz lagunekin eta aprobetxatu ezazu ondo denbora, bizitza laburra da eta!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Bazen garaia zure burua argitzeko! Ea oraingoan benetan bikote egokia aukeratu duzun eta aurrekoak baino gehiago irauten dizun.

agenda

ARRIAGA ANTZOKIA:

Apirilaren 26tik 30era: "*Peter Pan*", ume-entzate musikaldua. P. Chaber Robinson. Arratsaldeko 6,30etan.

Apirilaren 28tik 30era: "*La magia de Broadway*". Musikaldia. Gaueko 10,30etan.

BILBOROCK:

Apirilaren 28: "*Zombi Zu*". Kontzertua.

Apirilaren 29: "*Réquiem por Antonio Pan y Agua*", Izarraitz. Antzerkia.

EUSKALDUNA:

Apirilaren 28: I Ciclo de Conciertos Sacros: Bilbao Orkestra Sinfonikoa/Coro de la UPV J.S. Bach.

LA FUNDICION ARETOA:

Apirilaren 28-29: "*Ordago!*", Punto Fijo. Antzerkia.

Apirilaren 29-30: "*Ha pasado un ángel*", Danza La Permanente. Dantza.

KAFE ANTZOKIA:

Apirilaren 28: Urreztieta Konexion. Kontzertua.

MISTYK KAFE ANTZOKIA

Apirilaren 28: Cristina Lindegaard "*La canela*" eta "*Azabache*". "1ª Muestra de flamenco e impartición de clases".

MENDI IRTENALDIAK:

EGUZKI LOREA

Apirilaren 29tik maiatzaren 1 arte: Aizkorri, Anboto eta Gorbea.

Begoñako Auzo Etxea. Telefonoa: 944122738.

